

KONTROL MOZIOA

PENTSIONISTEN ESKAERAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hogeita hamar bat erretiratutak eta pentsiodunek eman dute izena, oraingoz, Bilbotik irailaren 23an abiatu den eta Madrileren urriaren 15era iristekoa den **ibilaldian** parte hartzeko. Euskal Herriko pentsiodunen zutabea Bilbotik abiatu da eta beste zutabe bat Cadizko Rotatik ateratu da urriaren 15ean Madrilen bat egiteko.

Ibilaldiaren helburua da "aurrerabideko gobernu bat galdegitea", eta euren aldarrikapenak berrestea:

- urtero benetako KPIa kontuan izanik handitzea pentsioen balioa,
- gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea,
- gutxieneko bataz-besteko soldata 1.200 eurokoa izatea,
- 2011an eta 2013an egindako lan erreformak bertan behera gelditzea,
- pentsioetan zein soldatetan ematen den genero arrakala apurtzea
- eta pentsio publikoak Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura osatzea, "ez maileguak erabiliz".

Bitartean, ehunka erretiratutak eta pentsiodunek elkarretaratzea egin zuten irailaren 30ean udaletxe aurrean, 2018ko urtarriletik astelehenero egin duten bezala. Kolektiboaren bozeramaileek kezka adierazi zuten egoera ekonomiko larrian dauden pentsionistekin eta, berriro ere, Udaltzatzen inplikazioa eskatu zuten.

Urriko batzordeetan delegatua interpelatu dugunean, udaltzatzen gobernuak hiriko pentsionisten egoera hobetzeko neurriak hartuko dituela adierazi digu, estae baterako: zahar etxeetan gizarte baliabideen inguruko hitzaldiak antolatu, Donostia Sustapeneko programa baten bidez pertsona bat kontratatu Kontsulta Kontsumitzailea Informatzeko Udaltzatzen Bulegoan adineko pertsonen beharrak eta zalantzak atenditzeko, etab. Baina, kontuan izan behar dugu, horrelako eskaerak 2015-2019 agintalditik datozela eta genero arrakalari aurre egiteko eskaera garrantzitsuenetako bat egin gabe dagoela, hau da: hiriko emakume pentsionisten pobreziaren inguruko diagnostikoa (2018ko martxoko udaltzatzen aurkeztutako kontrol mozioan onartua).

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko emakume pentsionisten pobreziaren inguruko diagnostikoa 2020ean egiteko epea eta plangintza zehaztu dezala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diagnostiko hori Donostia Sustapenak urtero egiten duen hiriko ekonomiaren barometroarekin batera argitaratu dezala.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia